ALHAO

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2016ko uztailaren 22a, ostirala • 83 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 429/2016 Foru Agindua, uztailaren 20koa, zeinaren bidez onartzen baitira ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren 610 eredua eta 611 eredua, bai eta azken horren diseinu fisikoak eta logikoak ere, ordenagailu bidez zuzenean irakurtzeko euskarri bidez aurkezteko**

Martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauak, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergarenak, 61.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, foru aldundiak baimendu dezake zerga eskudirutan ordaintzea, efektu tinbredunak erabili ordez, merkataritza trafikoaren ezaugarriak edo mekanizazio prozesua ikusita hala egitea komenigarri denean. Hala eginez gero, neurri egokiak hartu behar dira agiria eta horri dagokion diru sarrera behar bezala identifikatzeko, betearazpen eraginkortasunik galdu gabe.

50/2016 Foru Dekretuak baimentzen du egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga eskudirutan ordaintzea, efektu tinbredunak erabili ordez, eta zabaldu egiten du urriaren 1eko 692/1991 Foru Dekretuan ezarritako aplikazio eremua.

50/2016 Foru Dekretu horretan jasotakoaren arabera, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren foru agindu bidez onartuko dira ereduak, egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, efektu tinbredunak erabili ordez, eskudirutan ordaintzeko baimena erabiliko duten entitate laguntzaileek aurkeztu beharreko aitorpenaren urteko laburpenari eta aitorpen-likidazioari dagozkionak.

Beraz, bidezkoa da ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren 610 eta 611 eredu berriak onartzea, bai eta azken horren diseinu fisikoak eta logikoak ere, ordenagailu bidez zuzenean irakurtzeko euskarri bidez aurkezteko, 50/2016 Foru Dekretura egokitu daitezen.

Zeharkako Zergen Zerbitzuko Ondare Eskualdaketa, eta EJDen eta Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergen Atalak horren inguruan emandako txostenari atxiki zaio.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

**1. artikulua.** Onartzea 610 eredua, kreditu erakundeek negoziatutako dokumentuak kargatzen dituen ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, egintza juridiko dokumentatuen modalitatean, eskudirutan ordaintzeko egindako ordainketen hileko autolikidazioa.

Onarpena ematen zaio 610 ereduari (kreditu erakundeek negoziatutako dokumentuak kargatzen dituen ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, egintza juridiko dokumentatuen modalitatean, eskudirutan ordaintzeko egindako ordainketen hileko autolikidazioa), zeina foru agindu honen I. eranskin gisa jaso baita.

**2. artikulua.** Onartzea 611 eredua, alegia, kreditu erakundeek negoziatutako dokumentuak kargatzen dituen ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, egintza juridiko dokumentatuen modalitatean, eskudirutan ordaintzeko egindako ordainketen aitorpenaren urteko laburpena, bai eta ordenagailu bidez zuzenean irakurtzeko euskarria ere.

Onarpena ematen zaio 611 ereduari (kreditu erakundeek negoziatutako dokumentuak kargatzen dituen ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, egintza juridiko dokumentatuen modalitatean, eskudirutan ordaintzeko egindako ordainketen aitorpenaren urteko laburpena), zeina foru agindu honen II. eranskin gisa jaso baita; bai eta diseinu fisiko eta logikoei ere, ordenagailu bidez zuzenean irakurtzeko euskarri bidez aurkezteko, zeinak foru agindu honen III. eranskin gisa jaso baitira.

**3. artikulua.** 610 eta 611 ereduak aurkeztera behartuak

Honako hauek aurkeztu behar dituzte ereduak: merkataritzako dokumentuak kobratzean edo negoziatzean esku hartzen dutenek, baldin 50/2016 Foru Dekretua indarrean sartu aurretik ordainagiri eta ordaindukoetarako baimena bazuten; eta 50/2016 Foru Dekretuaren artikulu bakarraren bi idatz zatian ezarritako jakinarazpena egin ondoren, bertan aurreikusitako baimena baliatzen dutenek bitarteko izateko ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga eskudirutan ordaintzean, hain zuzen, egintza juridiko dokumentatuen modalitatean, zeinak ordainagiriak, ordaindukoak, txekeak eta merkataritzako beste agiri batzuk kargatzen baititu.

**4. artikulua.** 610 eta 611 ereduak aurkezteko modua eta epea

Bai 610 eredua bai 611 eredua Arabako Foru Aldundiaren Ogasun Zuzendaritzan aurkeztu behar dira, epe hauetan:

a) Foru Agindu honen I. eranskinean jaso den 610 ereduari dagozkion autolikidazioak aurkezteko eta diru sarrera egiteko epea kasuan kasuko eragiketak sortu ondoko hilabeteko 25. egunean amaituko da. Salbuespena uztailekoa izango da: hilabete horretako autolikidazioa aurkezteko eta dirua sartzeko epemuga irailaren 25a izango da.

b) Aitorpenaren urteko laburpena egiteko 611 eredua, II. eranskinean jaso dena, hurrengo urteko otsailaren 1a baino lehen aurkeztu beharko da, eta bertan jaso beharko da aurreko urtean negoziatzeko edo kobratzeko onartu diren ordainagiriak, ordaindukoak, txekeak eta merkataritzako beste dokumentu batzuk kargatzen dituen ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan eskudirutan ordaindutako zenbatekoei buruzko informazioa.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailaren 20a

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*
*JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ*

*Ogasun zuzendaria*
*TERESA VIGURI MARTÍNEZ*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.araba.eus

# Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga - Autolikidazioa
Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados - Autoliquidación

# 610

**Egintza Juridiko Dokumentatuak ■** Actos Jurídicos Documentados

**EJ ■ AJ** X

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila**

**Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos**

**KREDITU ERAKUNDEEK NEGOZIATUTAKO DOKUMENTUAK KARGATZEN DITUEN ZERGA ESKUDIRUZ ORDAINTZEA**
PAGO EN METÁLICO DEL IMPUESTO QUE GRAVA DOCUMENTOS NEGOCIADOS POR ENTIDADES DE CRÉDITO

**Hila ■** Mes

**Ekitaldia ■** Ejercicio

**Aitorpen osagarria**
Declaración complementaria

**AITORTZAILEA ■** DECLARANTE

**IFZ ■** NIF

**Abizenak eta izena edo sozietatearen izena ■** Apellidos y nombre o razón social

**AURKEZLEA ■** PRESENTADOR

**IFZ ■** NIF

**Abizenak eta izena edo sozietatearen izena ■** Apellidos y nombre o razón social

**AUTOLIKIDAZIOA ■** AUTOLIQUIDACIÓN

| | | 01 **Dokumentu kopurua** Número total | 02 **Zerga oinarria** Base Imponible | 03 **Zerga** Impuesto |
|---|---|---|---|---|
| A | **Ordainagiriak ■** Recibos | | | |
| B | **Ordaindukoak ■** Pagarés | | | |
| C | **Txekeak ■** Cheques | | | |
| D | **Bestelakoak ■** Otros | | | |

| | | |
|---|---|---|
| **Sartzekoa ■** A ingresar | 04 | |
| **Kontura ■** A cuenta | 05 | |
| **Errekargua ■** Recargo | 06 | |
| **Berandutze korrituak ■** Intereses de demora | 07 | |
| **Zerga zorra guztira ■** Total deuda tributaria | 08 | |

**DATA ETA SINADURA** FECHA Y FIRMA

**Tokia eta data**
Lugar y fecha ..........

**Sinadura eta sigilua**
Firma y sello

**SARRERA** INGRESO

**Sigilua ■** Sello | **Data ■** Fecha | **Entitatearen gakoa ■** Clave entidad | **Zenbatekoa ■** Importe

RE. 16/15

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.araba.eus

## Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga

Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados

**611**

**Egintza Juridiko Dokumentatuak** ■ Actos Jurídicos Documentados

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila**

**Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos**

**KREDITU ERAKUNDEEK NEGOZIATUTAKO DOKUMENTUAK KARGATZEN DITUEN ZERGA ESKUDIRUZ ORDAINTZEA**
PAGO EN METÁLICO DEL IMPUESTO QUE GRAVA DOCUMENTOS NEGOCIADOS POR ENTIDADES DE CRÉDITO

**Aitorpenaren Urteko Laburpena**
Declaración Resumen Anual

**AITORTZAILEA** ■ DECLARANTE

IDENTIFIKAZIO ETIKETA
ETIQUETA IDENTIFICATIVA

**Ekitaldia** ■ Ejercicio

**Aitorpenaren identifikazio zenbakia**
N.º identificativo declaración

**Ordezko aitorpena**
Declaración sustitutiva

**Aurreko aitorpenaren identifikazio zk.**
N.º identificativo de la declaración anterior

**IFZ** ■ NIF

**Aitortzailearen izena edo sozietate izena** ■ Nombre o razón social del declarante

**Zerga egoitza** ■ Domicilio fiscal

**Zenb.** ■ N.º

**Letra** ■ Letra

**Esk.** ■ Esc.

**Sol.** ■ Piso

**Aldea** ■ Mano

**Telefonoa** ■ Teléfono

**Udalerria** ■ Municipio

**Posta kodea** ■ Código postal

**Probintzia edo L. Historikoa** ■ Provincia o Território Histórico

**ORDEZKARIA** ■ REPRESENTANTE

**IFZ** ■ NIF

**Abizenak eta izena** ■ Apellidos y nombre

**LABURPENA** ■ RESUMEN

| | | |
|---|---|---|
| **Aitortuak guztira**<br>Número total de declarados | 01 | |
| **Dokumentuak, guztira**<br>Número total de documentos | 02 | |
| **Documentuen urteko zenbatekoa, guztira**<br>Importe total anual de los documentos | 03 | |
| **Diru sarreren urteko zenbatekoa, guztira**<br>Importe total anual ingresado | 04 | |

**DATA ETA SINADURA** ■ FECHA Y FIRMA

**Tokia eta data** ■ Lugar y fecha

**Aitortzailearen sinadura**
Firma del declarante

RE. 16/16

**Administrazioarentzako alea** ■ Ejemplar para la Administración

III. ERANSKINA

**611 EREDUA BALIABIDE TELEMATIKOEN BITARTEZ AURKEZTEKO SORTZEN DIREN FITXATEGIEK ETA ORDENAGAILUZ ZUZENEAN IRAKURTZEKO MODUKO EUSKARRIEK EDUKI BEHARREKO DISEINU LOGIKOAK ETA FISIKOAK**

**A) ORDENAGAILUZ ZUZENEAN IRAKURTZEKO MODUKO EUSKARRIEN EZAUGARRIAK**

Negoziatzeko edo kobratzeko onartutako ordainagiri, ordainduko, txeke eta bestelako merkataritza agiriak kargatzen dituen ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergako eskudiru ordainketen urteko aitorpen-laburpena aurkezteko ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriek (611 eredua) ondoko ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

- Mota: CD-R (Compact Disc Recordable), 12 cm-koa.
- Edukiera: 700 MB, gehienez.
- Formatua: ISO/IEC DIS 9660:1999, Joliet luzapenarekin nahiz hura gabe.
- Saio anitz: ez.

**B) DISEINU LOGIKOAK**

**ERREGISTROEN DESKRIBAPENA**

Aitortzaile bakoitzeko bi erregistro mota izango dira. Erregistro horiek lehenengo posizioak bereizten ditu, irizpide hauei jarraituz:

1 mota: aitortzailearen erregistroa: identifikazio datuak eta aitorpenaren laburpena. Atal hauetan beherago eta foru agindu honen eranskinean jasotako erregistro motetatik lehenengoaren diseinua

2 mota: Aitortuaren erregistroa: Atal hauetan beherago eta foru agindu honen eranskinean jasotako erregistro motetatik bigarrenaren diseinua

Aurkezteko hurrenkera erregistro motarena izango da. 1 motako erregistro bakarra izango da, eta behar adina 2 motako erregistro, kontuan izanik 2 motako erregistro bakar batean sartu ahal izango direla, metaturik, aitortu berari dagozkion mota bereko merkataritza agiri guztiei buruzko datuak, horiei dagokien zerga (EJD) hilabete berean sortu baldin bada. Aurreko elementuren bat (agiri mota, aitortua eta ordaindu den hilabetea) aldatzen bada, 2 motako erregistro berri bat erantsi beharko da.

Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldean lerrokatu behar dira, eta eskuinaldean zuriunez bete; letra larriz idatzi behar dira eta ezin da erabili karaktere berezirik ez bokal azentudunik.

Hizkuntzaren karaktere berezietarako ISO-8859-1 kodifikazioa erabiliko da. Honela, “Ñ” letra ASCII 209 izango da (Hex. D 1) eta “Ç” (ze hautsi larria) letra ASCII 199 (Hex. C7)

Eremu numeriko guztiak eskuinaldean lerrokaturik eta ezkerraldean zeroz beteta aurkeztu behar dira, zeinurik gabe eta paketatu Gabe.

Eremu guztiek izango dute edukia, eremuaren deskripzioan besterik adierazi ezean. Edukirik ez badute, eremu numerikoetan zeroak jarri behar dira eta alfabetikoak eta alfanumerikoak zuriunez bete behar dira.

1/7



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**611 EREDUA**

**1 ERREGISTRO MOTA: AITORTZAILEAREN ERREGISTROA.**

(POSIZIOAK, IZAERA ETA EREMUEN DESKRIBAPENA)

| POSIZIOAK | IZAERA | EREMUEN DESKRIBAPENA |
|---|---|---|
| 1 | Numerikoa | **ERREGISTRO MOTA**<br>Finkoa "1" |
| 2-4 | Numerikoa | **AITORPEN EREDUA**<br>Finkoa "611" |
| 5-8 | Numerikoa | **EKITALDIA**<br>Aitorpenaren zerga ekitaldiaren lau zifrak |
| 9-17 | Alfanumerikoa | **AITORTZAILEAREN IFZ**<br>Aitortzailearen IFZa idatzi behar da.<br>Eremu hau eskuinaldean lerrokatuko da; kontrol karakterea azkenean jarriko da eta ezkerreko posizioetan zeroak idatziko dira, uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretuak, identifikazio fiskaleko zenbakiaren eta haren osaeraren inguruko betebeharrak arautzen dituenak, ezarritako arauekin bat etorriz. |
| 18-57 | Alfanumerikoa | **AITORTZAILEAREN IZENA EDO SOZIETATE IZENA**<br>Sozietatearen izena idatzi behar da, osorik eta anagramarik gabe. Eremu honetan ezin da idatzi merkataritzako izenik. |
| 58 | Alfabetikoa | **EUSKARRI MOTA**<br>Gako hauek beteko dira:<br>**'C':** informazioa CD-R (Compact Disc Recordable) euskarrian aurkezten bada.<br>**'T':** aurkezpen telematikoa<br>Interneten bidez aurkezten da, egoitza elektronikoaren bidez. |
| 59-107 | Alfanumerikoa | **HARREMANETARAKO PERTSONA**<br>Harremanetarako pertsonaren datuak. Eremu honek bi atal ditu:<br>59-67 **TELEFONOA:** 9 posizioko eremu numerikoa.<br>68-107 **ABIZENAK ETA IZENA:** lehenengo deitura, zuriune bat, bigarren deitura, beste zuriune bat, eta azkenik izen osoa, hurrenkera horrexetan nahitaez. |

2/7

| | | |
|---|---|---|
| 108- 120 | Numerikoa | **AITORPENAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA**<br><br>Aitorpenaren identifikazio zenbakia idatzi behar da. 13 posizioko eremu numerikoa.<br><br>Jarri beharreko identifikazio zenbakia sekuentziala izango da, eta horren lehenengo hiru digituak 611 kodeari dagozkionak izango dira. |
| 121-122 | Alfabetikoa | **AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKOA**<br><br>Aparteko kasuetan, bigarren aitorpena edo ondoko besteren bat aurkeztuz gero, eremu hauetako bat bete behar da nahitaez:<br><br>121 **AITORPEN OSAGARRIA:** “C” jarriko da baldin eta aitorpen hau aurkeztearen xedea lehenago aurkezturiko ekitaldi bereko beste aitorpen batean agertu behar izan ziren baina hartan jarri gabe geratu ziren datuak sartzea bada<br><br>122 **ORDEZKO AITORPENA:** aitorpenaren xedea ekitaldi bereko aurreko beste aitorpen bat osorik deuseztatzea eta ordeztea bada, "S" idatzi behar da. Ordezko aitorpen batek aurreko aitorpen bat bakarrik deuseztatu dezake. |
| 123-135 | Numerikoa | **AURREKO AITORPENAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA**<br><br>“Ordezko aitorpena” eremuan “S” adierazi bada, ordezten duen aitorpenaren identifikazio zenbakia idatzi behar da.<br><br>13 posizioko eremu numerikoa.<br><br>Gainerako kasuetan ZEROAK idatzi behar dira. |
| 136-144 | Numerikoa | **AITORTUEN URTEKO KOPURUA, GUZTIRA**<br><br>Aitortzaile honentzako euskarria osatzen duen aitortuen erregistro guztien kopurua jarri behar da. Hartzaile berbera erregistro bat baino gehiagotan agertzen bada, zerrendaturik agertzen den adina aldiz konputatu behar da (2 motako erregistroen kopurua) |
| 145-153 | Numerikoa | **AGIRIEN URTEKO KOPURUA, GUZTIRA**<br><br>Erakunde aitortzaileak aitorpenari dagokion zergaldian negoziatzeko edo kobratzeko onartutako merkataritza agiri guztien (ordainagiri, ordainduko, txeke eta bestelakoen) kopurua idatzi behar da, baldin eta ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga (EJD modalitatea) eskudiruz ordaindu bada eta, hortaz, aitortzaile honentzako euskarria osaten badute. |

3/7



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

| | | |
|---|---|---|
| | | Aitortuaren erregistroko "Agirien kopurua" eremuetan (83-91 posizioak) agertzen diren zenbateko guztien batura izango da. |
| 154-171 | Numerikoa | **AGIRIEN URTEKO ZENBATEKOA, GUZTIRA** |
| | | 18 posizioko eremu numerikoa.<br>Aitortuen erregistroetako "Agirien guztirako zenbatekoa" eremuetan (92-106 posizioak) agertzen diren kopuru guztien baura jarriko da, zeinurik eta hamartarren komarik gabe.<br>Zenbatekoak EUROtan adierazi behar dira.<br>Eremu honek bi atal ditu:<br>154-169 Agirien zenbatekoaren zati osoa.<br>170-171 Agirien zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri. |
| 172-189 | Numerikoa | **ORDAINDUTAKO ZERGAREN GUZTIRAKO ZENBATEKOA** |
| | | 18 posizioko eremu numerikoa.<br>Aitortuen erregistroetako "Ordaindutako zerga" eremuetan (107-121 posizioak) agertzen diren kopuru guztien batura jarriko da, zeinurik eta hamartarren komarik gabe.<br>Zenbatekoak EUROtan adierazi behar dira.<br>Eremu honek bi atal ditu:<br>172-187 Ordaindutako zergaren zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri.<br>188-189 Ordaindutako zergaren zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri. |
| 190-250 | ---------- | **ZURIUNEAK** |

- Zenbateko guztiak positiboak izan behar dira.
- Edukirik gabeko eremu numerikoak zeroz bete behar dira.
- Edukirik gabeko eremu alfanumerikoak eta alfabetikoak zuriunez bete behar dira.
- Eremu numerikoak eskuinaldean lerrokatu behar dira eta ezkerraldean zeroz bete behar dira.
- Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldean lerrokatu behar dira, eta eskuinaldean zuriunez bete. Letra larriz idatzi behar dira, karaktere berezirik gabe eta azentudun bokalik gabe, eremuaren deskripzioan besterik adierazi ezean.





L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**611 EREDUA**

**2 MOTAKO ERREGISTROA: AITORTUAREN**

(POSIZIOAK, IZAERA ETA EREMUEN DESKRIBAPENA

| POSIZIOAK | IZAERA | EREMUEN DESKRIBAPENA |
|---|---|---|
| 1 | Numerikoa | **ERREGISTRO MOTA**<br>Finkoa “2” |
| 2-4 | Numerikoa | **AITORPEN EREDUA**<br>Finkoa “611” |
| 5-8 | Numerikoa | **EKITALDIA**<br>1 motako erregistroko zuriune hauetan dagoena idatzi behar da |
| 9-17 | Alfanumerikoa | **AITORTZAILEAREN IFZ**<br>1 motako erregistroko zuriune hauetan dagoena idatzi behar da |
| 18-26 | Alfanumerikoa | **AITORTUAREN IFZ**<br>Pertsona fisikoa bada, aitortzailearen IFZ jarriko da, uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretuak, identifikazio fiskaleko zenbakiaren inguruko betebeharrak eta haren osaera arautzen dituenak, ezarritako arauen arabera.<br>Aitortua pertsona juridikoa edo errenta egozketaren araubideko erakundea bada (ondasun erkidegoa, sozietate zibila, jaraunspen banatu gabea, etab.), beraren identifikazio fiskaleko zenbakia adieraziko da.<br>Eremu hau eskuinaldean lerrokatu behar da, azken posizioan kontrol karakterea jarri behar da eta ezkerreko posizioak zeroz bete behar dira.<br>Aitortuak adingabeak badira eta IFZrik ez badute, ez da eremu hau beteko, “Legezko ordezkariaren IFZ”ren eremua baizik. Horretan, legezko ordezkariaren (aitaren, amaren edo tutorearen) IFZ jarriko da. |
| 27-35 | Alfanumerikoa | **LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ**<br>Aitortua adingabea bada eta IFZrik ez badu, haren legezko ordezkariaren (aitaren, amaren edo tutorearen) identifikazio fiskaleko zenbakia jarriko da eremu honetan.<br>Eremu hau eskuinaldean lerrokatu behar da, azken posizioan kontrol karakterea jarri behar da eta ezkerreko posizioak zeroz bete behar dira.<br>Gainerako kasuetan, eremu hau zuriunez beteko da. |

5/7



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

| | | |
|---|---|---|
| 36-75 | Alfanumerikoa | **AITORTUAREN ABIZENAK ETA IZENA EDO SOZIETATE IZENA**<br>a) Pertsona fisikoa bada, honela idatziko da: lehenengo deitura, zuriune bat, bigarren deitura, zuriune bat, eta izen osoa, hurrenkera horrexetan nahitaez. Aitortua adingabea bada, eremu honetan adingabearen deiturak eta izena idatziko dira.<br>b) Pertsona juridikoa edo errenta egozketaren araubideko erakundea bada, sozietatearen izena edo erakundearen izendapen osoa idatziko da, anagramarik gabe |
| 76 | Numerikoa | **AGIRI MOTA**<br>Gako hauetako bat jarri behar da:<br>"1": ordainagiriak badira.<br>"2": ordaindukoak badira.<br>"3": txekeak badira.<br>"4": bestelako merkataritza agiriak badira. |
| 77-78 | Numerikoa | **ORDAINTZEKO MODUA**<br>Zerga ordaindu den hilabetea adieraziko da, bi digiturekin (01etik 12ra).<br>2 posizioko eremu numerikoa. |
| 79-80 | Numerikoa | **ORDAINDU DEN LEKUA**<br>Finkoa: Araba 01 |
| 81-82 | Numerikoa | **SORTZAPEN PROBINTZIA**<br>Finkoa: Araba 01 |
| 83-91 | Numerikoa | **AGIRIEN KOPURUA**<br>Erakunde aitortzaileak kudeatzen dituen eta ondoko ezaugarri hauek dituzten agirien kopurua jarriko da:<br>a) "Agiri mota" eremuan (76 posizioa) adierazten den motakoa izatea.<br>b) "Aitortuaren IFZ" eremuan (18-26 posizioetan) jarritako IFZ daukan aitortuari buruzkoak izatea.<br>c) Dagokion zerga (EJD) "Ordaindu den hilabetea" eremuan (77-78 posizioetan) adierazitako hilabetean ordaindu izana.<br>d) Dagokion zerga (EJD) "Ordaindu den lekua" eremuan (79-80 posizioetan) adierazitako lekuan ordaindu izana. |

6/7

e) Dagokion zerga (EJD) "Sortzapen probintzia" eremuan (81-82 posizioetan) adierazitako lekuan sortu izana.

| | | |
|---|---|---|
| 92-106 | Numerikoa | **AGIRIEN GUZTIRAKO ZENBATEKOA**<br>15 posizioko eremu numerikoa.<br>Aurreko eremuan (83-91 posizioetan) sartutako agirien guztirako zenbatekoa adierazi behar da.<br>Zenbatekoak EUROtan adierazi behar dira.<br>Eremu honek bi atal ditu:<br>92-104 Agirien zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.<br>105-106 Agirien zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira. |
| 107-121 | Numerikoa | **ORDAINDUTAKO ZERGA**<br>15 posizioko eremu numerikoa.<br>Aurreko eremuan (92-106 posizioetan) sartutako agiriei dagokien ordaindutako zergaren guztirako zenbatekoa jarriko da.<br>Zenbatekoak EUROtan adierazi behar dira.<br>Eremu honek bi atal ditu:<br>107-119 Ordaindutako zergaren zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.<br>120-121 Ordaindutako zergaren zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira. |
| 122-250 | ----------- | **ZURIUNEAK** |

- Zenbateko guztiak positiboak izan behar dira.
- Edukirik gabeko eremu numerikoak zeroz bete behar dira.
- Edukirik gabeko eremu alfanumerikoak eta alfabetikoak zuriunez bete behar dira.
- Eremu numerikoak eskuinaldean lerrokatu behar dira eta ezkerraldean zeroz bete behar dira.
- Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldean lerrokatu behar dira, eta eskuinaldean zuriunez bete. Letra larriz idatzi behar dira, karaktere berezirik gabe eta azentudun bokalik gabe, eremuaren deskripzioan besterik adierazi ezean.

7/7



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**611 EREDUA. 1 MOTAKO ERREGISTR0A. AITORTZAILEAREN ERREGISTROA**

| Eremua | Aurrez betetakoa | Posizioak |
|---|---|---|
| ERREGISTRO MOTA | 1 | 1 |
| AITORTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA – EREDUA | 6, 1, 1 | 2, 3, 4 |
| AITORTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA – EKITALDIA | | 5, 6, 7, 8 |
| AITORTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA – AITORTZAILEAREN IFZ | | 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17 |
| AITORTZAILEAREN IZENA EDO SOZIETATE IZENA | | 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26, 27, 28, 29, 30, 31, 32, 33, 34, 35, 36, 37, 38, 39, 40, 41, 42, 43, 44, 45, 46, 47, 48, 49, 50, 51, 52, 53, 54, 55, 56, 57 |
| EUSKARRI MOTA | | 58 |
| TELEFONOA | | 59, 60, 61, 62, 63, 64, 65 |

| Eremua | Posizioak |
|---|---|
| HARREMANETARAKO PERTSONA – (hutsik) | 66 |
| HARREMANETARAKO PERTSONA – ABIZENAK ETA IZENA | 67, 68, 69, 70, 71, 72, 73, 74, 75, 76, 77, 78, 79, 80, 81, 82, 83, 84, 85, 86, 87, 88, 89, 90, 91, 92, 93, 94, 95, 96, 97, 98, 99, 100, 101, 102, 103, 104, 105, 106 |
| AITORPENAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA | 107, 108, 109, 110, 111, 112, 113, 114, 115, 116, 117, 118, 119, 120 |
| AITORPEN OSAGARRIA | 121 |
| ORDEZKO AITORPENA | 122 |
| AURREKO AITORPENAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA | 123, 124, 125, 126, 127, 128, 129, 130 |

| Eremua | Posizioak |
|---|---|
| (itzalduta) | 132, 132, 133, 134, 135 |
| AITORTUEN URTEKO KOPURUA, GUZTIRA | 136, 137, 138, 139, 140, 141, 142, 143, 144 |
| AGIRIEN URTEKO KOPURUA, GUZTIRA | 145, 146, 147, 148, 149, 150, 151, 152, 153 |
| AGIRIEN URTEKO ZENBATEKOA, GUZTIRA – OSOA | 154, 155, 156, 157, 158, 159, 160, 161, 162, 163, 164, 165, 166, 167, 168, 169 |
| AGIRIEN URTEKO ZENBATEKOA, GUZTIRA – HAMARTARRA | 170, 171 |
| ORDAINDUTAKO ZERGAREN GUZTIRAKO ZENBATEKOA – OSOA | 172, 173, 174, 175, 176, 177, 178, 179, 180, 181, 182, 183, 184, 185, 186, 187 |
| ORDAINDUTAKO ZERGAREN GUZTIRAKO ZENBATEKOA – HAMARTARRA | 188, 189 |
| (itzalduta) | 190, 191, 192, 193, 194, 195 |

| Eremua | Posizioak |
|---|---|
| (itzalduta) | 196, 197, 198, 199, 200, 201, 202, 203, 204, 205, 206, 207, 208, 209, 210, 211, 201, 213, 214, 215, 216, 217, 218, 219, 220, 221, 222, 223, 224, 225, 226, 227, 228, 229, 230, 231, 232, 233, 234, 235, 236, 237, 238, 239, 240, 241, 242, 243, 244, 245, 246, 247, 248, 249, 250 |

611 EREDUA. 2 MOTAKO ERREGISTR0A. AITORTUAREN ERREGISTROA

| Eremua | Laukiak | Balioa |
|---|---|---|
| ERREGISTRO MOTA | 1 | 2 |
| AITORTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA — EREDUA | 2 3 4 | 6 1 1 |
| AITORTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA — EKITALDIA | 5 6 7 8 | |
| AITORTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA — AITORTZAILEAREN IFZ | 9 10 11 12 13 14 15 16 17 | |
| AITORTUAREN IFZ | 18 19 20 21 22 23 24 25 26 | |
| LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ | 27 28 29 30 31 32 33 34 35 | |
| AITORTUAREN ABIZENAK ETA IZENA, EDO SOZIETATE IZENA | 36 37 38 39 40 41 42 43 44 45 46 47 48 49 50 51 52 53 54 55 56 57 58 59 60 61 62 63 64 65 | |

| Eremua | Laukiak |
|---|---|
| | 66 67 68 69 70 71 72 73 74 75 |
| AGIRI MOTA | 76 |
| ORDAINDU DEN HILABETEA | 77 78 |
| ORDAINDU DEN LEKUA | 79 80 |
| SORTZAPEN PROBINTZIA | 81 82 |
| AGIRIEN KOPURUA | 83 84 85 86 87 88 89 90 91 |
| AGIRIEN GUZTIRAKO ZENBATEKOA — OSOA | 92 93 94 95 96 97 98 99 100 101 102 103 104 |
| AGIRIEN GUZTIRAKO ZENBATEKOA — HAMARTARRA | 105 106 |
| ORDAINDUTAKO ZERGA — OSOA | 107 108 109 110 111 112 113 114 115 116 117 118 119 |
| ORDAINDUTAKO ZERGA — HAMARTARRA | 120 121 |
| | 122 123 124 125 126 127 128 129 130 |

| Eremua | Laukiak |
|---|---|
| | 131 132 133 134 135 136 137 138 139 140 141 142 143 144 145 146 147 148 149 150 151 152 153 154 155 156 157 158 159 160 161 162 163 164 165 166 167 168 169 170 171 172 173 174 175 176 177 178 179 180 181 182 183 184 185 186 187 188 189 190 191 192 193 194 195 |

| Eremua | Laukiak |
|---|---|
| | 196 197 198 199 200 201 202 203 204 205 206 207 208 209 210 211 212 213 214 215 216 217 218 219 220 221 222 223 224 225 226 227 228 229 230 231 232 233 234 235 236 237 238 239 240 241 242 243 244 245 246 247 248 249 250 |



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2016.07.22 05:45:40 Z